

KONTSULTA FASEA, NAFARROAKO ZUZENBIDE ZIBILARI BURUZKO KONPILAZIOA EDO FORU BERRIA ALDATZEKO FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUA PRESTATU AURREKOA.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen 44. artikulua aitortzen du herritarrek eskubidea dutela xedapen orokorrak prestatzeko prozesuetan parte hartzeko iradokizunak igorritz. Parte-hartze hori eraginkorra izan dadin, Administrazio Publikoko departamentu bakoitzak xedapen orokorrak prestatzeko abian diren prozeduren zerrenda argitaratuko du, bakoitzaren xedea eta tramitazio egoera zehaztuta.

Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria aldatzeko Foru Legearen aurreproiektua prestatu aurretik, komenigarria eta bidezkoa da jendaurreko kontsulta ahalbidetzea, eta, horretarako, nafarrei arau horri buruzko alderdi hauek jakinarazten zaizkie Nafarroako Gobernu Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atariaren bidez egokitzen dituzten iradokizunak egin ditzaten:

1.-Legegintzako ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Nafarroako Zuzenbide Zibilari buruzko Konpilazioa edo Foru Berria 1973an argitaratu zenetik, aldaketa orokor bakarra izan du, apirilaren 1eko 5/1987 Foru Legearen bidez egin zitzaiona, hain zuzen, honela justifikatu zena: Konpilazioaren manuetako asko –bereziki familia zuzenbidea osatzen dutenak– ez datoz bat errealitate sozialarekin, eta, are gehiago, batzuetan Konstituzioaren I. tituluan jasotako printzipio batzuei kontrajartzen zaizkio, eta, beraz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 6. artikulua urratzen dute (“nafarrek gainerako espainiarrek dituzten oinarrizko eskubide, askatasun eta betebeharrak dituzte”).

Horrela, aipatutako foru legeak sartutako aldaketa gehien bidez, ahalegina egin zen Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilean ordura arte zeuden diskriminazioak desagerrarazten, sexuak, jaiolekuak edo egoera zibilak eragindakoak.

31 urte joan dira aldaketa hartatik.

Iragan diren hiru hamarkada hauetan Nafarroako gizartearen bilakaerak gaintu egin ditu Foru Berriaren arauen xede izan ziren egoerak, berriz ere Familia- eta Oinordetza-zuzenbidearen arloan gehienbat, kontuan hartu behar baita Konpilazioaren ardatza tronkalitatean oinarritutako familia eredu dela.

Ez dugu ahaztu behar, halaber, Nafarroako legegileak Konpilaziotik kanpo ezarri zuela bikote egonkorren erregulazioa, Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearen bidez. Arau horren edukiak

eragina izan zuen Konpilazioaren beraren agindu zehatz batzuetan. Foru lege horren hainbat artikulua Konstituzioaren kontrakoak zirela deklaratu zuen Konstituzio Auzitegiak apirilaren 23an emandako 93/2013 Epaiak, irizten ziolako, funtsean, bikote egonkorraren izaera lege ezartzeak, kontuan hartu gabe bikoteko kideen borondatea, lege aurreikuspenen menpe jartzekoa, urratzen zuela nortasunaren garapen librerako oinarrizko eskubidea.

Halatan, adostasun zabala dago, soziala nahiz teknikoa, Konpilazioa Nafarroako errealitate sozio-familiarrera egokitzeko beharraz, bertan familia eredu guztiak sartzeko, edozein dela ere haien jatorria, eta Konstituzioan jasotako printzipio eta oinarrizko eskubide guztiak zeharo errespetatuz; behar hori da, hain zuzen ere, legegintzako ekimen honen bultzada eta funts nagusia.

2.-Araua onestearen beharra eta egokitasuna.

Azken hilabeteotan, arlo juridikoko aditu askok eta kolektibo sozialen hainbat ordezkari azaldu dute Parlamentuan, horretarako eratu zen Ponentzian, beharrezkoa dela erreforma hori egitea, batetik Konpilazioa aplikaezina delako bere testuan aurreikusi ez dauden hainbat kasutan, Nafarroako errealitatea sozial eta familiarrean duela zenbait hamarkadatik benetan gertatzen direnetan, eta, bestetik, aurreikusitako asko ez datoz bat errealitate sozial horrekin; bi fenomeno horiek lege aldetik konponbidea eskatzen duten arazoak eta auziak sortzen dituzte.

Foru Zuzenbide Zibilaren Aholku Kontseiluak ere, otsailaren 6ko 9/2006 Foru Dekretuak sortu zuenak eta 2016ko uztailetik kide berriak dituenak, lan-saioetan Konpilazioaren arauz egindako azterketa xehean, behar hori nabarmendu du, aztertu dituen zenbait erakunderi dagokionez.

3.–Erreformatzen helburuak.

Erreformatzen presa berezia dago, baita beharra ere, Familia- eta Oinordetza-Zuzenbidearen arloan, gaur egungo erregulazioak gai horietan sortzen ari delako arazo praktiko handienak, eta bertan ikusten delako, halaber, aurreikusi gabeko kasuetarako berariazko konponbideen falta. Konpilazioan, garatu eta erreformatuz gero, arazo horiei heltzen ahal zaie.

Horregatik, Konpilazioko testu osoaren berrikuspen integrala eta artikulua guztietan beharrezkoak diren aldaketak eta zehaztapen tekniko ugari egitea baztertu gabe, aipatutako gaietan erreformatzen lortu nahi dituen helburu nagusiak hauek dira:

- Pertsonen adinaren ondorioz duten gaitasunari buruzko arauak garatzea, adingabeen oinarrizko eskubideak babesteko.

- Familia errealitate desberdinak eta haien babes juridikoa aurreikustea.
- Seme-alabatasun mota desberdinei buruzko arauak garatzea, eta haien ondorioak parekatzea.
- Gurasoek beren seme-alaba adingabeei dagokienez dituzten betebeharrak eta ahalmenak garatzea, elkarrekin bizi bitartean, bereizita bizi bitartean eta bizikidetza arazoak daudenean; egoera horiek eragindako gai guztietan gurasoen arteko ituna sustatuko da eta, halakorik ezean, hartu beharreko neurri judizialak ezarriko dira.
- Bikote egonkorak arautzea Konstituzioak ezarritako printzipioak eta eskubideak errespetatuz.
- Ezkontza barruko ondasunen araubideari buruzko arauak sistematizaztea, bai ezkontzak dirauen bitartean bai indarra galdu ondoren.
- Familiako dohaintzak errealitate eta behar berrietara egokitzea.
- Etxearen erakundea eguneratzea.
- Testamentuak ematean dauden arazo praktikoak konpontzea.
- Ermandadeko testamentuaren erregulazioa hobetzea.
- Nafarroan, oinordetza zuzenbidean, testamentua egiteko askatasunak dituen muga batzuk ezabatzea.
- Legezko oinordetza familiaren errealitate berrira egokitzea.

Aipatutako helburuez gain, ondarearen gaineko zuzenbideari dagokionez soilik, erreformaren xedea da, halaber, bete beharreko ondasun eta harremanen araubideko arauak berrikustea.

4. Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak).

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilak modu egokian irauteko, beharrezkoa da Konpilazioa edo Foru Berria berrikusi, eguneratu, aldatu eta garatzea foru lege bidez (Foru Hobetzearen 48.2 art.), egungo testuak ez dituelako kontuan hartzen Nafarroako errealitate sozial eta familiar desberdin guztiak, eta, horrenbestez, ez

duelako konponbiderik jartzen epaitegietan aurkezten diren arazo nagusien aurrean; are gehiago, Konpilazioan aurreikusitako kasuetako askok arazoak eta auziak sortzen dituzte gaur egun, eta horiei legegintzatik heldu beharko zaie eta konponbidea eman.